2022ko
URTARRILA
2.zk

ville de
HASPARREN
HAZPARNEko
herria

HAZPAR Infos

Hazparneko herriko aldizkaria

5.or.

HASPARNE, SAKELAN !

Sinplea eta praktikoa

6.or

HIRI BARNEKO PROJEKTUA

Obren egutegia

15.or.

BIZITEGIAK

bi erosketa

ARGIBIDE PRAKTIKOAK

AUZAPEZAREN PERMANENTZIAK
Astean behin eta hitzordua harturik
05.59.29.17.75
communication@ville-hasparren.fr

HARRERA HERRIKO ETXEAN
Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 17:00etara
Larunbat goizetan 9:00etatik 12:00etara
(Egoera zibilaren bulegoa bakarrik)
05.59.29.60.22

«Elgar» Zerbitzu Publikoen Etxea
05.59.70.20.36
mspelgar@ville-hasparren.fr

GEUZ
Elgar, Hazparneko zerbitzu publikoen etxea
05.59.70.29.07

Médiateka Pierre Espil
Elgar, Hazparneko zerbitzu publikoen etxea
05.59.70.16.83

Gazte Informazio Gunea
Elgar, Hazparneko zerbitzu publikoen etxea
05.59.29.58.33
pij@ville-hasparren.fr

Argibide gehiago Herriko Etxearen webgunean:
ville-hasparren.fr

KREDITUAK ETA LEGEZKO OHARRAK

Hazparneko herriko aldizkaria
– Janvier 2022 -
Argitalpen arduraduna: Isabelle Pargade
Argazkiak: Hazparneko Herriko Etxea, Matiuzalem

Paper birziklatuan inprimatua
IRIART inprimategia - Hazparne

2022ko biztanle kontaketa

Biztanleriaren kontaketari ihardestea zinez baliosa da, herriaren geroa eraikitzeko!
Internet bidez, are sinpleagoa da:

BALIOSA DA ORAINA ULERTZEKO ETA GEROA ERAIKITZEKO

Biztanleriaren kontaketaren zifrek ahala ematen dute **egungo herritarren beharrak ezagutzeko** (garraioak, bizitegiak, eskolak, osasun-zentroak, zahar etxeak eta abar) eta geroa eraikitzeko herriaren buxeta zehaztuz.

NOLA EGITEN DA BIZTANLE KONTAKETA?

Urtarrilaren 20tik goiti, Internet bidez, biztanleriaren kontaketari ihardesten ahalko diozue: www.le-recensement-et-moi.fr

Biztanle kontaketa eginen duen langileak laster emanen dizkizue gorago aipatu webgunera konektatzeko kodeak. Ezin baduzue Internet bidez ihardetsi, paperezko galdetegiak betetzen ahalko dituzue.

Zuen erantzunak arras konfidentzialak dira. INSEE da galdetegia molde anonimoan erabiltzeko baimena duen erakunde bakarra.

Urte berri on 2022

Urteberriko agiantzen zeremonia 2022ko urtarrilaren 22an iraganen da, larunbatean, 18:00etan, Mendeala salan. Herritarrei irekia izanen da, osasun egoeraren bilakaeraren arabera.

ÉDITORIALA

Hazpandar maiteak,

Pandemiaren testuinguruan sartu nintzen karguan. Orduan, zerbitzu publikoaren jarraikitasuna eta osasun segurtasuna izan ziren gure arrangura nagusiak. 2021ean, 13.000 pertsona baino gehiago hartu zituen txertaketa zentro bat plantan eman genuen. Hemen omendu nahi ditut azken hilabeteetan gelditu gabe lanean ari izan diren herriko langileak, baita medikuntzako langileak ere, haiek gabe hori guzia ez baitzen posible izanen.

Aldi berean, gure engaiamenduei jarraikiz, kargualdi honetan proiektu inportante batzuk bultzatu ditugu.

*Lehenik, hainbeste igurikatua den herri barnearen dinamizatzea eta biziaraztea, Tilura ondoen plaza eta inguruko karrikak arraberrituz. 2021ean lehen ikerketak egin ziren, eta obrak **2022ko buruilean** hasten ahalko dira.*

Ondotik, bizitegien gaia. Afera horrek sekulako inportantzia du gure ekintza publikoan. Prezioen gorakadaren aitzinean, herriko eraikin eta lurren jabe izateko gure nahia are handiagoa da. Aspalditik hutsik den Duhart eraikina eta 1,8 ha-ko lur eraikigarri bat erosirik, belaunaldi guziendako bizitegiak arrazoizko prezioan proposatzeko parada emanen duten egitasmoak gauzatuko ditugu.

Bestalde, elkarteak laguntzeko xedeari jarraikiz, bigarren mailako errugbi zelaia berritu dugu eta entrenatzeko gune berri bat sortu dugu.

Gainera, bizikleten bidezko joan-jinak sustatzeko asmoz, lehen bizikleta bidea egiteko proiektua bururatu dugu. 2022 urte hastapenean hasiko dira bidea egiteko lanak.

Herritarrei eskaini zerbitzuei dagokionez, eta hitzeman bezala, gure herriko elkarbizitzaren kalitate ona atxikitzeko, hiritzaintza zerbitzua indartu dugu.

Azkenik, 2021 urtea bururatzeko, smartphonendako aplikazio berritzaile eta elebiduna sortu dugu, Herriko Etxeko zerbitzuekin aiseago mintza zaitezten.

Beraz, gure kargualdiaren hastapeneko bereizgarri nagusia berrikuntza da; eta oldar berean segituko dugu, zuek denak kausitzeko eta zuekin denekin mintzatzeko prest izanen baikara beti.

Herriko kontseilu osoaren izenean, gure agiantzarik hoberenak eskaini nahi dizkizuet, 2022 urte zoriontsua, osasuntsua eta arrakastatsua izan dezazuen.

Bihotzez,

Isabelle PARGADE
Auzapeza

BI LANKIDE BERRI

Zerbitzuen zuzendari nagusi berria

Hazparneko Herriko Etxeak ongietorria egiten dio Marie LHOUMEAU zerbitzuen zuzendari nagusi berriari. Turena eskualdetik jin, eta 2021eko buruilaren 1ean hasi zen lanean. Senarraren ofizioaren ondorioz bizitokiz aldatzen usatua zen; azkenean, Euskal Herrian finkatu da familia osoarekin.

Gaztetan, legelari ikasketak egin zituen. 8 urtez, aurrekontu zerbitzuko burua izan zen Gard departamenduko Kontseilu Orokorrean. Gero, finantza eta giza baliabideen zuzendari nagusi laguntzailea izan zen 11.000 biztanleko herri batean. Ondotik, Toulon hiriko GEHZ-eko finantzen arduraduna izan zen.

Azkenik, 2014tik goiti, Chinon herriko (8.200 biztanle) zerbitzuen zuzendari nagusia izan zen. Horregatik, elkargo bateko finantza, administrazio eta giza alderdi guziak menperatzen ditu.

Esperientzia handia du elkargoaren zerbitzura, eta gai izanen da antolakuntza norabide berri bat definitzeko, finantzamendu beharrak aitzinetik ikusteko eta hazpandarrei gero eta zerbitzu eraginkorragoa eskaintzeko.

Hiritzaintzaren zerbitzua handitzen ari da!

Herriko Etxeak herritarrendako zerbitzua indartu nahi izan du, hirizain berri bat hartuz.

Sabrina AROZTEGUI ere 2021eko buruilaren 1ean hasi zen lanean, Michel ETCHEVERRYren lankide gisa.

Ondoko herri batean bizi den hogeita hamar urte inguruko emazte honek esperientzia handia du jadaneko, polizia nazionalean bost urtez ari izan ondoan, bertze bost urtez hirizain gisa lanean ari izan baita Biarritzen.

Prebentzioa, segurtasuna, pedagogia, hurbileko zerbitzua, herriaren bihotzean.

+ La Police Municipale est joignable par téléphone au 05.59.29.17.71
Par courriel : police-municipale@ville-hasparren.fr

NUMERIKOA ETA BERRIKUNTZA

ELKARRIZKETA JÉRÔME LARRIEU EKONOMIA, BERRIKUNTZA ETA NUMERIKOAREN AXUANTAREKIN.

Herritarren aplikazio bat plazaratu berri duzue. Zer da?
Smartphonendako aplikazio bat da. Deskargatzeko plataforma guzietan eskuragarri da. Herritarrendako kitorik da, eta euskara-frantsesa elebiduna da. Informazioa errazago eta berehala eskuratzeko aukera ematen du.

Zer eskaintzen du aplikazio honek?
Informazio anitz (gure webgunean ere eskuragarri direnak) berehala eta erraz kontsultatzeko aukera ematen du: herriko zerbitzuak, saltegiak, elkarteak. Gainera, sarbide sinplifikatua eskaintzen du hainbat informaziotarako: larrialdi zenbakiak, osasun arloko profesionalak, joan-etorriak egiteko moldeak, herriko berriak eta gertakarien agenda.
Nabarmendu beharreko berrikuntza: "seinalamenduak" izeneko modulua, zeinaren bidez herritarrek bide edo garbitasun arazo bat aipa baitezakete, eta, adibidez, argazkia igor eta geolokalizazioa zehaztu. Herriko zerbitzu teknikoek, zuzenean informaturik, lasterrago esku hartzen ahal dute.

Informazio gehiagorik?
Herriaren webgunea berritu dugu. Osoki berregituratu dugu, eta orain herriko zerbitzuetarako sarbide erraztua eskaintzen die herritarrei. Bertsio berria osoki elebiduna da eta ahalmen urriko pertsonentzat erabilgarria da.
Berrikuntzen artean, atalen berrantolaketa osoaz gain, telefono mugikorretarako aplikazio berbera agertzen da webgunean: "seinalamenduak" izeneko modulua.
Eta beste modulu bat dago ere, egoera zibilaren zerbitzuarekin hitzordua hartzeko ahala ematen duena, nortasun paperen galdatzeko.

+ Deskargatu "*Hasparren*" aplikazioa zure smartphonetik.

Hiri barneko proiektua

HAMAR URTEZ BIZTANLERIA % 20 EMENDATU DA, IBILGAILUEK AUTO METAKETAK ERAGITEN DITUZTE, TOPOGRAFIARENGATIK HELTZEKO ERRAZTASUNA MUGATUA DA ETA SALTEGI HUTSAK %15 DIRA.

OHAR HORIEK DIRA, BESTEAK BESTE, HERRI BARNEA BERRANTOLATZEKO GOGOETAREN ITURRI.

Hiri barneari hats berri bat emateko

DESSEIN DE VILLE" ARKITEKTO KABINETEAK EGIN LEHEN ZIRRIBORROA.

2018an herriak antolatu zuen kontsultan 574 pertsonek parte hartu zuten. Kopuru adierazgarria.

HONA PARTE HARTZAILEEK ADIERAZI OHARREN BILDUMA OROKORRA: :

- Hiri barnea ez da biziki goxoa
- zirkulatzeko eta aparkatzeko zailtasunak

HIRI BARNEAREN ERAKARGARRITASUNA HOBETZEKO LEHENTASUNEZKO EKINTZAK:

1. EREMU PUBLIKOAK BERRANTOLATZEA
2. HIRI BARNEAN AUTOEN PRESENTZIA MUGATZEA
3. JOAN-JINEN EROSOTASUNA ETA SEGURTASUNA HOBETZEA (OINEZKOENDAKO ETA TXIRRINDULARIENDAKO)
4. SALTEGIEN ESKAINTZA DINAMIZATZEA

OBREN EGUTEGIA

Hazpandarrekin hitzartzea, bi gairi buruzko tailer parte-hartzaileen bidez:
. erabilpenak eta bizi ingurumena
. mugikortasunak

2021EKO OTSAILA

HAUTAGAITZEN ENTZUTEA

Hautatu 5 kabinete hoberenetarik, «Dessein de Ville» izendatzea obralari gisa.

2020KO AZAROA

HAUTAGAITZAK

Hautagaitzak aurkezteko epearen bururatzea. 25 arkitekto kabinetek ihardetsi zuten.

2020KO URRIA

OBRALARITZA

obralaritzako merkatua esleitzeko kontsultaren abiatzea, hiri barneko eremu publikoak arraberritzeari dagokionez.

2020KO UZTAILETIK BURUILERA

PROIEKTUAREN OINARRIA:

Egitekoaren eta baldintza agiriaren zehaztea.

2021EKO MARTXOTIK AGORRILERA

IKERKETAK

lehen ikerketa teknikoak (sareak).

2021EKO BURUILA

LEHEN ZIRRIBORROAK

proiektuaren lehen zirriborroen aurkezpena

2021EKO URRITIK ABENDURA

DESMARTXA ADMINISTRATIBOAK

Desmartxa administratiboak

2021EKO URTARRILETIK OTSAILERA

IBILGAILUEN JOAN-JINAK

Zapataginen karrikan bi norabideen berreskuratzeko obrak, herri barnean ibilgailuen kopurua tipitzeko.

2022KO MARTXOTIK EKAINERA

MERKATU PUBLIKOA

obrak eginen dituzten enpresak hautatzeko kontsultak abiatzea.

2022KO BURUILA

OBREN HASTEA

ZIRKULAZIO PLANAREN BERRIKUSTEA

Gaur egun, zirkulazio plan berri bat aztertzen ari gara, herri barnean ibilgailuen kopurua tipitzeko eta joan-jinak hobeki partekatzeko.



IBILGAILUEN KONTATZEA

Hilabete batez, sentsoreei esker, ibilgailuak kontatu ahal izan dira. Kontaketaren arabera, egunean 5.000 ibilgailu baino gehiago sartzen dira herri barnean. (ASTELEHENETIK IGANDERAKO BANA BESTEKOA)



INDUSKETA ARKEOLOGIKOAK

Tilura ondoen plaza HAZPARNEko hilerri zaharraren gainean dago. Obren karietara, Estatuak galdatzen du indusketak egitea prebentzio gisa, jakiteko hondarkin arkeologikorik baden.

HILEN OROITARRIAREN LEKUALDATZEA

Hilen oroitarria herriko hilerrira eramanen da. Tilura ondoen plazan bakearen oroitarri bat ezarriko da, eta azken horren aitzinean eginen dira ospakizun ofizial guziak.

BIDEETAKO OBRAK

ZELAI

Aparkaleku baten sortzea Urtsuaren oinean. Laborariendako pasabide baten egitea, kanadar pasabidearen heinean.

URKOI

D10 errepidearen luzeran oinezkoendako bide segura egin da.

SOHANO

Bidearen zabaltzea.

LABIRI

Autobus aterpe baten eraikitzea.

ELIZABERRI

Marmaun sartzeko bidearen antolatzea.

PILOTA PLAZA

Entseñako bidearen arranjatzea.
Piknika leku berriaren instalatzea.

HERRI BARNEA

Errugbia: Bigarren errugbi zelaiaren arraberritzea (drainatzea, ureztatzea...) eta entrenamendu eremu berri baten eraikitzea zezen plazaren gibelean.

Bizikleta bidea: Xapitalia eta Charles de Gaulle hiribidearen artean bizikleta bidea egiteko ikerketaren bururatzea. Bizikleta bide hau errepidetik bereiz eginen da eta norabide bikoitzekoa izanen da.

Herri barneko pilota plaza: Joan den primaderan, Harana plazako errebote nagusia berriz tindatu zen.

Hilerria: Hilobien eta hauts ontzi hilobien eraikitzea herri barnean eta Urkoin.



Aparkalekua eta kanadar pasabidea / Zelai

Oinezkoendako bidea / Urkoi

Entrenamendu zelai berria

Piknika lekua / Pilota Plaza

Herri barneko pilota plaza

Hilerria / Herri barnea

Autobus aterpea / Labiri

HIRIGINTZA DESMARTXA SINPLIFIKATUA

Orain, eraikitzeko baimena linean galdatu eta aurkezten ahal da. Horretarako, Hazparneko Herriko Etxearen webgunean, sartu lehenik "Zure desmartxak" eta gero "Hirigintza" atalean, eta klik egin "Baimen galdea aurkeztea" estekan.

Euskara

Xarta

Euskararen xarta ofizialki sinatu duen lehen herrietarik bat da Hazparne. Ondorioz, 35 engaiamendu hartu ditu herriak, euskararen alde egiteko, erakundeetan, tokiko hedabideetan, hezkuntzan eta egunerokoan (zerbitzu publikoak, seinaletika, webgunea).

2

Ondarea

Kapera

1 **Ondarearen egunak:** hiru bisita gidatu oso eta eginiko eta egin beharreko lanei buruzko argazki-erakusketa mediatekan…

2 **Grand Prix Pélerin saria**: uruilaren 15ean, Parisen, Pariseko Notre Dameko arkitekto buruak saria eman zion herriari (5.000 €, mosaikoa zaharberritzeko).

Hirugarren (eta azken) obrak buruilean hasi ziren: ezkila dorrea, zurgintza, elektrizitatea, murru pinturak.

1

Zapata

3 **Maiatzaren 11n** prentsaurrekoa antolatu zen Historia Batzordearekin, objektuak, tresnak, dokumentuak eta abar biltzen hasteko.

Hamabost bat ihardespen izan ziren, haietan usina zahar baten emaitza garrantzitsu bat…

Udako liburuxka: herrian joko-lehiaketa baten egitea, ondare historiko eta industrialaren inguruan.



3

Kultura

Artea eskolan

4 Berina leiho tailerra kaperan, Santa Teresa eta Jean Verdun eskoletako 200 ikaslerekin (apirila-maiatza)

5 *« Le Tour du monde en 60 mn »* ikuskizuna Belharra Trio taldeak emanik. 8 emanaldi, mediatekan, 4. eta 5. urteko ikasleentzat (ekaina).

Agorrileko merkatu guzietan, **MERKANTUZ**: Mendi Xola, Elgarrekin, La Pena eta Les Jeunes Basques tokiko elkarteek animaturik.

6 **Francis Jammes** : buruilaren 23an, poeta famatuaren alabatxiaren kausitzea Herriko Etxean, 2022an Eihartzean antolatuko den erakusketa prestatzeko.

7 **Azaroaren 11**: Hilen oroitarriari omenaldia, 100. urteburuaren kari. Elhuyar kolegioko hirugarreneko bi ikastalderekin, Batterie Fanfare Haitzmendirekin eta lehen mailako eskoletako haurrekin.

8 **1. Liburuaren Azoka** 2azaroaren 20an, mediatekan. “Des auteurs et des livres” elkartearen laguntzarekin.

Gazte kantuz azaroaren 27an, Mendeala salan: Abdellah Boujalal, Bolzed, Pauline eta Juliette.

4

6

5

7

8

LUR-ZERGARI BURUZKO ARGIBIDEAK



Azken zerga agiria irakurtzean, zuetarik anitzek uste izan duzue lur-zerga bikoiztu zela. Baina, ez da egia!

Eragiketa mekanikoa bat baizik ez da

Estatuaren erabakia –zeinaren arabera familiak libratzen baitira bizitegi zerga pagatzetik– berri ona izan da familia guzientzat. Aldiz, horrek ondorio zuzena du herrien funtzionamenduan, lur-zerga herrien diru sartze nagusietarik bat baitzen.

Galtze hori konpentsatzeko, gobernuak deliberatu zuen departamenduen lur-zergaren zatia herriei ematea. Izan ere, 2020 arte, jabeek bi lur-zerga ordaintzen zituzten: herriaren zatia eta departamenduaren zatia.

HAZPARNEn, lur-zerga % 12,58-koa zen herriarentzat eta % 13,47-koa departamenduarentzat. Bi kopuruen batuketa egin ondoan, orain % 26,05-koa da.

Hemendik aitzina, herriak lur-zerga bakarra bozkatuko du etxeekilako lur-zergari buruz.

BIZITEGIAK, EKIPAMENDU PUBLIKOAK ETA LUR JABEGOA

ETXEBIZITZAREN EGUNGO KRISIARI BURU EGITEKO, EKIPAMENDU PUBLIKOAREN BEHARRAK AITZINETIK PENTSATZEKO ETA GURE HERRIKO BIZI INGURUMENA ZAINTZEKO, HERRIKO KONTSEILUAK EPE LUZERAKO LUR ESTRATEGIA BADU.

2021ean, bi erosketa inportante egin ziren:

- **DUHART eraikina, Jean Lissar karrikan.** Eraikin zahar horretan, bizitegiak eta saltegia daude, zapata usina zahar bat eta 3.262 m²-ko lurra gibelaldean. 820.000 eurotan erosi da.

Xedea da eraikina zaharberritzen hastea, gure herriko nornahik eros ditz akeen bizitegiak sortzeko, eta aspalditik hutsik den eta ontsa kokatua den gure herri barneko lokal batean saltegi jarduera berriz abiatzeko.

- **"Arteeta" lurra.** 17.700 m² azalera du. 723.000 eurotan erosi da. Horri esker, herriak bizitegi egitasmo bat abiatzen ahalko du. Parte handi batean jabegora heltzeko bizitegiak izanen dira. Eta, etorkizunean, ekipamendu publiko bat eraikitzen ahalko da.

Erosketa horiek ez dituzte herriaren finantzak kaltetzen, tokiko elkargoen esku dagoen erakunde bati esker egiten baitira: Ipar Euskal Herriko Lur funtsen Erakunde Publikoa. EPFL-ek gure partez erosten ditu seinalatzen dizkiogun ontasunak. Herriak urte guziez ordaintzen ditu ontasunen eramaile- eta mantentze-gastuak, erosi ontasunen balioaren % 1etaraino.

Aurten egin diren bi erosteetarako, eramaile-gastuak 15.000 eurokoak dira, eta 2022ko aurrekontuan agertuko dira. Bi ontasun horiek salduko dira gero, eta, hola, hastapenean ezarri dirua berreskuratzen ahalko da.

HERRIARTEKO TOKIKO HIRIGINTZA PLANAREN (HTHP) ALDATZEARI BURUZKO BILANA

1. **2020-KO ABENDUA**: Hazparneko lurraldeko herriarteko Tokiko Hirigintza Planaren (hTHP) aldatzeko erabakia, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariak harturik, HAZPARNEko auzapezak hala galdatu ondoan.
2. **2021-EKO URTARRILETIK 2021-EKO EKAINERA**: Kartografiaren aldatzea eta eraikuntzari buruzko araudiaren hobekitzea, hTHP-ak hunkitzen dituen lurralde eremuko 11 auzapezen eskutik. * **2021-EKO MARTXOAREN 6-A, LARUNBATA**: Bilkura publikoa Hazparnen, urratsen aurkezteko
3. **2021-EKO UZTAILA ETA AGORRILA**: EHEren zerbitzuek aldaketak formalizatzea.
4. **2021-EKO BURUILETIK ABENDURA**: IEstatuko zerbitzuek proposaturiko aldaketak bideratzea.
5. **2022-KO URTARRILA**: Auzitegi administratiboak komisario-inkestagilea izendatzea.
6. **2022-KO OTSAILA ETA MARTXOA**: Inkesta publikoa eta inkestaren txostena.
7. **2022-KO MARTXOAREN 5-ETIK MAIATZAREN 21-ERA** (inkestaren txostenaren bururatze dataren arabera): EHEren kontseiluan aldaketaren alde bozkatzea. Orduan, hTHP berria aplikatzen ahalko da.

HTHP-AREN ALDAKETA PROZEDURA SINPLIFIKATUA DA. EREMU ERAIKIGARRIAK LABORANTZAKO EREMU BILAKATZEKO AUKERA EMATEN DU.
ALDERANTZIZKOA EGITEKO, BERRIKUSKETA EGIN BEHAR DA. PROZEDURA HONEK DENBORA BIKOITZA IRAUTEN DU.

URREZKO ETA ZILARREZKO EZTEIAK

50 ...

Duela 50 edo 60 urte, BAIETZ erran zioten elkarri, “hala zorionean nola zorigaitzean”... Aitortu behar da, gaur egun, arraro dela holakorik hitz ematea eta bizitzea.

Izan ere, bikote anitzek elkarrekin luzaz egoteko zailtasunak dituzten garaian, senar-emazte haiek urteetan elkarrekin bizitzen jakin dute eta familia sendoak sortu dituzte. Hala, eredu dira haien familia eta lagunentzat.

CASTRO Joseph eta LOUBET Danielle ; ELICEIRY Etienne eta LARRE Laurence ; URRUTY Jean eta LEIZA Jeannine ; VIGNES Jacques eta DURRUTY Marie-Louise ; AINCIART Jean-Pierre eta LEON Marie-Thérèse ; ALZURI Joseph eta ETCHEVERRY Marie-Madeleine ; BARRIERE Jean eta MONGABURU Marie ; CLAUDEPIERRE Marie-Christian et ISTIL Françoise ; HIRIBARNE Pierre eta INCHAUSPE Paulette ; LABADIE Laurent eta ETCHART Anna ; LARRE Jean-Paul eta LISSAR Danièle ; PEDOUAN Michel eta ETCHART Marie-Yvonne ; ETCHEGARAY Henri eta DURO Hélène ; LANDAGARAY René eta FAUT Etiennette ; LAHIRIGOYEN Robert eta MARTINON Marie-Geneviève ; LAGRENADE Jean-Baptiste eta DABESCAT Marie-France

... eta 60 urte ezkondurik

Herriko kontseiluak Herriko Etxean errezibitu zituen azaroaren 27an (urrezko ezteiak) eta abenduaren 11n (zilarrezko ezteiak), eta goresmenak eman zizkien bizi ibilbide ederra eginik.

IRIGOIN Pierre eta DERGUY Marie-Hélène ; RÉVORÉDO Léon eta GOUTENÈGRE Marie ; ITHOROTZ Henri eta HIRIGOYEN Elisabeth ; BACARDATS Roger eta PALACIN Marie-Jeanne ; ERROTABÉHÈRE Pierre eta BACARDATZ Bernadette ; COURTELARRE Ernest eta MAILLOUQUET Marie ; CARRAU Roger eta OXARART Marie ; ANGUELU Saint Jean eta DASTÉGUY Marie ; BIDABÉ Bertrand v ETCHART Marie

INFORMAZIO C.A.P.B.

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOKOAK KUDEATZEN DITU HONDARKINAK, MUGIKORTASUNAK ETA URA, LURRALDEKO 158 HERRIETAN.

HONDARKINAK

Gure hiri barneko bizi ingurumena eta garbitasuna hobetzeaz axola dugu. Horregatik, hondarkinak biltzeko moldea kanbiatu da. Orain, hiri barneko herritarrek bilketa guneetara joan behar dute hondarkinak uzteko, herriko bertze kartier guzietan bezala.

+ **Hondarkinen zerbitzuaren kontaktua 05 59 57 11 80 dechets.barnekalde@communaute-paysbasque.fr**
+ **Ikus EHEko bilketa guneen mapa:**

! Oroit: errotik debekatua da nork bere hondarkinak erretzea.

URA

EHEk nahi du zerbitzu publiko eraginkorra eta erabiltzaile guziengandik hurbila izatea.

+ **Ur, saneamendu kolektibo eta saneamendu ez kolektiboaren zerbitzuak: 05 59 29 17 72**

! Deipeko zerbitzua (konponketa zerbitzua, besta egunetan eta asteburuetan): 06 08 03 61 22

MUGIKORTASUNAK

Norentzat ?
Garraio solidarioaren zerbitzu hau Hazparneko lurralde eremuko 11 herrietako biztanleentzat da. 70 urtez goitiko edo mugikortasun urriko hazpandarrak Herriko Etxeak plantan eman duen zerbitzuaz balia daitezke.

Noiz ?
Astelehenetik ortziralera, 08:30etik 18:00etara.
Larunbata eta igandea: urririkako laguntzaileen ahalen arabera.

Nola baliatu zerbitzuaz?
Ene herriko erreferenteari telefonatzen diot, edo, halakorik ez bada 06.95.14.88.67 zenbakira telefonatzen dut, zerbitzuari buruzko argibide guziak biltzeko eta gutienez 48 oren lehenago erreserba egiteko.

+ **Hazparne : 06 52 43 70 10**
  Herriko Etxearen zerbitzua: 06.15.48.56.28

GUTIENGOARAN HITZEA

HAZPARNE AZKAR ETA ERNE HERRITARREKIN TALDEA

Hazpandar maiteak,
Zer egin du I. PARGADEn taldeak lehen 18 hilabeteetan?

● Inbestimenduan? DEUS EZ
o THP-en berrikustea lehen 6 hilabeteetan? EZ
o Suhiltzaileen egoitzaren lekualdatzea? EZ
o Postetxearen erostea Turismo Bulegoarendako? EZ
o Herri barnearen antolatzea (eskailera mekanikoak...)? EZ
o Bide obrak? Kasik FITSIK... "Ahantziak" diren kartierretako bizitzaileak ontsa ohartuak dira...
o Eskolako jantegi berria? EZ. Alta, guk dosierra muntatu eta eraikitzeko baimena sinatu genuen...
Gauza bakarra egin du. Guk hartu genuen deliberoaren segitzea, Bihotz Sakratuaren edo Misionesten kaperaren lehen bi obrak finantzatuz... Aldiz, hona herriak egin EROSKETAK:
o DUHART etxea eta lurra, J. Lissar karrikan: 820.000 €
o ARTEETA lurra: 723.000 € aipatu gabe: eramaile-gastuak (% 1), notario gastuak, bi bizitegi sozialen eraikitzeko egokitzapena (?)

● Funtzionamenduan? Gastuen EMENDATZEA, haietan:
o Zerbitzuen zuzendari nagusiaren lansari bikoiztua (zuzendari nagusi berria + auzapez andereak baztertu duen zuzendari nagusi ohia)
o Bertze langile baten hartzea, saltegien ekintzak segitzeko Interneten...

Horra finantzei buruz egin nahi genituen zenbait ohar (eta ez duda, izanen da bertzerik!). 18 hilabetez, hautetsi talde berriak komunikazio hutsala egin du. Ekintza guti eta gaitasunik ez...

Urte berri on eta zaindu!
«Unis pour Hasparren, Hazparne azkar eta erne» zerrenda
B. INCHAUSPE, S. PEREZ, P. FIESCHI, L. BILBAO, JP LARRART

Gure herrian bizitzeko eskubidearen alde!

Euskal Herrian, etxeak betidanik sinbolika berezi bat ukan du.
Baina gaur egun, bere balorea eraldatu nahi digute. Batzuentzat, lurra eta etxea ontasun higiezin batzuk baizik ez dira. Probetxu iturri sinpleak.

Euskal Herriko prezioak hemengo biztanleen beharretarik arrunt deskonektatuak bilakatu dira. Gure haur, gazte, langile eta pertsona xumeek ezin dute gehiago beraien herrian bizi.

Hainbat mobilizaziok espekulazioa, etxebizitza eskasa, etxebizitza hutsen eta sasoiko alokatzeen biderkatzea salatu dute: Arbonan, Miarritzen, Kanbon, Donibane Lohitzunen, Beskoitzen... Denetan, borroka berdina !

Hazparnen, gure herriko gazteek eraman duten okupazioak kritika batzuk jaso ditu. Ekintza hau ilegala zen, baina bidezkoa. Gazte hauek, gure herriak sufritzen duen eritasun bat azpimarratu dute : bizitoki eskaintzaren ahultasuna.

Urkoin, eraikuntza proiektu bat bertan behera utzia izan da auzoek bultzatutako mugimendu baten ondotik.

Mobilizazioak ondorio onak eragin ditu. Baina garaia etorri da Hazparneko etxebizitzen arazoaren inguruan hausnarketa orokor bat eramateko, egoera soilei banaka erantzutea saiatu ordez.

Urte guztiko alokatzeak hobetsi behar ditugu eta etxe hutsak bete behar ditugu.
Elgarrekin, etxe bat ukaiteko eskubidearen alde !
Elgarrekin, lurren eta etxeen gaineko espekulazioaren kontra !

Urte berri on bat opa dizuegu!

GAZTENAK

Hazparneko Gazte Informazio Bulegoa egituratzen ari da!

Hazparne infoJeunes EXPLORER LES POSSIBLES

infojeunes_hasparren

Info Jeunes Hasparren

+ Non?
Elgar zentroko behereko estaian
Gaskoina karrika, 11 - 64240 Hazparne

+ Telefonoa : 05.59.29.58.33
E-posta : pij@ville-hasparren.fr

Lokalaren arraberritzea, mubleen erostea eta euskarri numeriko egokituen erostea, Akitania Berriko eskualdearen dirulaguntzari esker.
11 eta 30 urte artean dituzu, eta informazioa behar duzu orientazioari, lana bilatzeari, osasunari, bidaiei, bizitegiari, mugikortasunari, engaiamenduari, eskubideei eta abarri buruz? Hala bada, leku hau zuretzat da!
Animatzaile batek lagunduko zaitu desmartxa guziak egiten.
Gainera, Gazte Informazio Bulegoa udako lanen edo ikastaldien eskaintzak zabaltzeko lekua da ere. Ez duda, eta hona jin!

// Josta Leku

"Familia" atari berri bat badugu, buruila hastapenetik.

Interneten edo aplikazio baten bidez, burasoen, aisialdi zentroaren eta herriko haurtzaindegiaren arteko harremanak erraztea du helburu.

Aisialdi zentroak 148 haurrendako (ama eskolatik seigarrenera) lekua du.

Uda honetan, osasun egoera zaila izanik ere, 15 nerabe Bokale Zaharrera eta Eretara joan ahal izan ziren. Haiendako pentsatu lekuetan errezibituak izan ziren.

Gazteenek Hazparne inguruan kanpaldiak eta egun bateko ibilaldiak egiteko parada izan zuten.

Asteazkenetan, langile talde dinamiko bat aritzen da aisialdi zentroa animatzen. Abenduaren 15ean, Bizarzuriren bisita izan zen!

Zerbitzua proiektu pedagogiko berri bat idazten ari da, eskolaz kanpoko eta eskolaldi inguruko kalitatezko aktibitateak proposatzeko eta haurrak biharko desafioei sentsibilizatzeko.

+ Informazioa: 06.24.84.46.03 edo jostaleku@ville-hasparren.fr

ÉTAT CIVIL / EGOERA ZIBILA

Du 01 janvier 2021 au 20 décembre 2021 / 2021ko apirilaren 01etik 2021ko abenduaren 20rat

Etat civil communiqué avec l'accord des intéressés ou de leur famille Egoera zibila argitaratua da hunkituak diren jendeen edo haien familien baimenarekin

2020

NAISSANCES / *SORTZEAK*

Andoni BERNOS
Eztitxu, Kattin, Marie-Claude ERROTABÉHÈRE

DÉCÈS /*HILTZEAK*

Jean-Pierre LISSAR

2021

DÉCÈS /*HILTZEAK*

Marie IHITZ veuve HAÏSSAGUERRE
Jean SARTHOU
Grégoire DURRITZAGUE
Robert MARCARIE
Beng KHAMSOMBATH ép. KHANTHAVILAYRAKSA
Jeanne LUC
Bernadette, Catherine PETRISSANS ép. FAGALDE
Marie, Mélanie GICQUEL veuve MARIOT
Marie INCABY veuve BEHENGARAY
Pierre DURRUTY
Renée ETCHENIQUE veuve LAXAGUE
Marie, Marthe BACARDATS veuve VERMONT
Jean-Louis, Marie BRUSSET
Gérard, Michel, André POTVIN
Trifon MARISCO
Marie-Thérèse JAURIBERRY veuve CORDOBÈS
SORHONDO vve CAILLAU
Séverin OSPITAL
Marie, Madeleine ABBADIE ép. GARREAU
Anne-Marie, Florence FERRONT
Michel, Marie LOYATHO
Bernard LARROUDÉ
Jean-Michel LAVIGNE
Bernard, Marcel BOCQUET
Jean-Pierre, Roger, Gabriel HAMON
Jean-Pierre VERGEZ
Jean, Louis IZQUIERDO
Pierre GOUTENÈGRE
Pierre, André, Jean ETCHEGARAY
Mireille, Marthe, Georgette DUBOS ép. MOURADIAN
Gérard PINAQUY
Pierre ETCHEVERRY
Paulo, José GREGORIO TABORDA MESQUITA
Micheline, Marguerite BELLIN-ROBERT vve MICHEL
Jean-Loup, Yves CARRÉ
Jean-Pierre HÉGUY
Jean-Michel ETCHEGORRY
Léon OTHONDO
Hélène, Odile CANIVENQ
Hervé, Michel BENOIT
François Salvat ETCHENIQ
Marianne-Denise CINQUALBRES vve GOYHÉNÈTCHE
Henri, Arnaud ABBADIE
Claude, Gabriel MARCHAND
Marie-José, Roberte RAGOT vve ISARD
Anne, Josette LUCAS
Bernard, Henri RICHARD
Marie, Véronique, Andrée OXOBY ép. GOUTENÈGRE
Dominique IRIGOIN
Francis, Richard CARLI
Michel HEUGA
Laurence Agnès HIRIGOYENBERRY ép. ECHEVERZ
Jean, Marceau, Henri PLAA
Françoise-Thérèse HIRIBARREN veuve VALENTIN
Monique, Marie, Pervenche CHAIMBAULT veuve FONTENIL
Fernande, Olga, Lucie ODION
Marie Jeanne BESSONART-LARREGAIN veuve ETCHEBERRY
Gilbert Jean-Marie Edouard LERUSSI
Anne, Marie LASSALLE vve ETCHECOIN
Marguerite CAMOU vve HIRIBARNE
Pierre ETCHEVERRY
WUYART Annie Thérèse
Guy Joseph Arnaud ASCARAT
Marie-Jeanne SAINT ESTEBEN vve SALABERRY

NAISSANCES / *SORTZEAK*

Vitoria ALVES dos SANTOS
Jules BARANTHOL
Aëlys, Chantal, Nina, Rose GARCIA
Xane BONHOMME
Alba, Cecilia, Annik THIRY WILMORE
Anaya, Cassandre, Diane BEURET JAGGLI
Xana BELLOCQ
Lena ACHERITOBEHERE
Elai HEGUIBEGUI
Noé DARRAÏDOU
Léo PHOCAS
Romy, Laurie ROGER VIOLLET
Lilou MATIAS DE JESUS BRUNEL
Haize SERRE
Robin, Paul, André BESSIN
Luke MAILHARIN
Arthur ROUMEGOUS
Martin, Gérard YANCI
Roméo TARAGNAT ANTUNES
Oliana, Naia CHOUPIN
Lana, Rose DA COSTA
Noah ELUZIN
Andoni DAMESTOY
David CRUZ DOS SANTOS
Maxime, Agustin LAGARDE
Mahina, Eva DASQUET
Etti POCHELU
Damien, Jean-Philippe GOHIER

MARIAGES / *EZKONTZAK*

Melissa BRUNEL et Xavier MATIAS DE JESUS
Elisabeta-Mihaela DINU et Jacques TROLLIET
Adriana PINZON VEGA et Baptiste IBARRA
Antonella CRU et Loïc SURZUR
Mathilde FAUQUET et Guillaume LARRE
Mikela IGLESIAS et Iban LAMARQUE
Céline MARTIARÉNA et Christophe SALLATO
Amélie BOULET et Gorka CUEVAS
Héloïse TESSIER et Paul OLAZABAL
Miren AROTÇARENA et Ramuntxo ONDARTS
Camille ROUX et Guillaume PIGASSOU
Marianne PIEULHET et Xabi-Txomin BETELU
Françoise SZYMEZAK et Mario QUARANTA
Jessica HEITLER et Romain SICARD
Vincent ETCHEBARNE et Christelle IRIBERRY
Charlotte SOUMAGNAC et Nicolas MUTTI
Mickaël BRARD et Silana CLAUDEPIERRE

RETOUR EN IMAGES
IRAGAN GERTAKARIAK IRUDITAN

Zinegin, le festival du cinéma basque a pu souffler avec succès ses 10 bougies !

Urtxintxak, journée citoyenne pour la planète

animations de Noël de l'U.C.A

les U19 ont réalisé un superbe parcours dans la Coupe Gambardella devant un public chaleureux. Le club a reçu le label jeune excellence et label bronze féminin valorisant le travail de tout un club